



2024KO MAIATZAREN 10EKO 277. ALKATETZAKO DEKRETUA

IKUSIRIK: Etxeako! Barrundiako Guraso Elkartearen helburuak honako hauek dira:

- Barrundiako haur, gaztetxo eta gurasoen elkarezagutza eta harremana sendotzeko bidea sortzea.
- Haur, gaztetxo eta gurasoen aisialdi beharrei erantzunak aurkitzea.
- Barrundiako biztanleen artean, elkarren ezagutza, kohesioa eta herrien bizitasuna pizteko ekimenak martxan jartzea.
- Herritarron artean zaintza, haurrak, gazteak, helduak eta aitona-amonak kontuan hartuta eraikitzen ikastea.
- Euskara, harreman onak, kultura berrien arteko irekitasuna, herritartasun erantzulea eta Barrundian bizi-poza ereitea.

GERTUA IZANIK: ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEAK 2024ko urtean honako emanaldi hauek burutu eta antolatu ditu:

- 2024ko martxoaren zehar: Irakurketa eta ulermenaren bilaketari buruzko 3 eguneko tailerra.
- 2024ko apirilaren zehar: Zirku tailerra Barrundiako udal polikiroldegia inguruan.

GERTUA IZANIK: Barrundiako Udalak ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEA erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 3.000,00 eurotako dirulaguntza luzatuko du (2024ko Aurrekontu Orokorretako 334.481.008 partida).

GERTUA IZANIK: Barrundiako Udalak eta ETXEAKO! BARRUNDIAKO GURASO ELKARTEA erakundeak, 2024ko maiatzaren 08an, lankidetz hitzarmena sinatu dute goian aipatutako jarduera guztiak aurrera eramateko xedez.

KONTUAN HARTUZ: Zuritutako zenbatekoa 3.541,60 €takoa da.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- “Etxeako! Barrundiako Guraso” elkarteari 3.000,00 €tako diru laguntza luzatzea eta ordaintzea.

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

BIGARRENA.- Aurreneko gastu hori onartzea Aurrekontu Orokorretako 334.481.008 aurrekontu-sailera atxikituz.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau “Etxeako! Barrundiako Guraso” elkarteari jakinaraztea.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean eta nik horren fede eman dut.

ALKATEAK

IDAZKARIAK

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzaila / Secretario Interventor	10/05/2024 09:16
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	10/05/2024 09:18